

## BAIMEN-KONTRATUA

errepertorioa bigarren mailako eta beharrezko giro-  
musika moduan erabiltzeko

Lokala **IBARRA KIROLDEGIA** Lokal-mota **KIROLDEGIA**  
Helbidea **MARKOLE** zk. **Z/G**  
Udalerrria **ARETXABALETA** PK **20550**  
Probintzia **GIPUZKOA**

Lekua: **ARETXABALETA**

Data: **2015, 02, 01**

### BILDUTAKOAK

Batetik, **Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusia**, helbidea Madrilgo Fernando VI 4an duena eta  
Irene Agirre Goiena andreak zonaldeko ordezkari  
moduan ordezkatzan duena

Alderdi hau **SGAE** izango da aurrerantzean.

Bestetik, **Ana Bolinaga Uribarren**  
andrea, adinez nagusia, **Otalora kalea, 1** helbidea  
duena, Udalerrria **Aretxabaleta** Probintzia **Gipuzkoa** PK **20550**  
Tel. **943711862** Mobila e-posta **udala@aretxabaleta.eus**  
**72571762E** zenbakidun IFZ NAN Pasaportea Bizileku-baimena duena eta [1] diharduena.

Alderdi hau **ENPRESA** izango da aurrerantzean.

[1] Bere izenean

Sozietate honetako ordezkari moduan: **ARETXABALETAKO UDALA** helbidea **Otalora, 1**

zenbakian duena eta

**P2001400G**

IFK duena,

(e)(a)n

kaleko

(e)ko

notario jaun/andrearen aurrean bere protokoloko

zenbakipean

eskuetsitako eskrituraren bidez egiaztatzen duen bezala.



## ADIERAZITAKOA

**I. SGAE** autore-eskubideak kudeatzeko erakundea da, eta honako hauexetan xedatutakoaren arabera arautzen da: Jabetza Intelektualari buruzko Legeko Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 12ko I/1996 Legegintzako Errege Dekretuko III. liburuko IV. titulua eta bere estatutuak. Horrez gain, Kultura Ministerioak 1988ko ekainaren 1ean emandako Aginduaren bidez dago baimenduta, eta, besteak beste, Testu Bateratu horretako 90.4. artikuluaen arabera autoreek eta eskubidedunek jendaurreko komunikaziorako eta ordainsarirako duten eskubidea betearazten du bere estatutuetan aurreikusitako baldintzen arabera.

**II.** Kontratu honen ondorioetarako, honako haxe izango da **SGAEk** administratutako erreperorioa: musikako konposizioak (letrarekin edo letrarik gabe), lan dramatikoak, lan dramatiko musikalak eta zinematografikoak eta ikus-entzunezko gainerako lanak, betiere jendaurreko komunikaziorako eta ordainsarirako eskubideen titularrek eskubide horien kudeaketa **SGAEren** esku utzi badute eta uzten badute, bere estatutuen arabera garatu dezan. Era berean, aurkakorik adierazi ezean, horrelako edozein lan **SGAEren** erreperoriokoa dela hartuko da kontuan.

**III.** **ENPRESAK** **SGAEren** erreperorioko lanak erabili nahi ditu jendaurreko komunikaziorako, kontratu honetako I. eranskinean zehaztutako baldintzetan. Ondorio horretarako, adierazi egiten du jakin badakiela zein diren **SGAEren** tarifa orokorrak bertan azaldutako modalitateetarako.

**IV.** Jardun bitartean, kontratatzeko eta derrigortzeko beharrezkoa den legezko gaitasuna elkarri aitortu ondoren, kontratu hau gauzatzen dute honako hauexen arabera:

## XEDAPENAK

### LEHENENGOA.- Helburua

1) **SGAEk** **ENPRESARI** baimen ez-esklusiboa emango dio, bere erreperorioko lanak jendaurrean komunikatzeko. Horretarako, kontratu honetako I. eranskinean azaldutako baldintzak eta mugak hartuko ditu kontuan.

2) Kontratu honen ondorioetarako, beharrezko giro-musika izango da, musika-lanen erreperorioaren erabilera oro eteten denean establezimenduaren izaera, jarduera edo ustiapen-modua nabarmen aldatzen badira.

3) Era berean, kontratu honen ondorioetarako, bigarren mailako eta halabeharrezko giro-musika izango da, erreperorioaren erabilera oro eteten denean establezimenduaren izaera, jarduera edo ustiapen-modua nabarmen aldatzen ez badira.

### BIGARRENA.- Erreserbatutako eskubideak

1) Kontratu honen helburutik kanpo eta lanen titularrentzat erreserbatuta geratuko dira lanen erabilerarako modalitateen arloan dituzten eskubide guztiak, betiere lehenengo xedapenean aurreikusita ez badaude edo xedapen horretan berariaz adierazitakoak ez beste baldintza batzuetan eta beste modu batean gauzatu behar badira.

2) Modu berezian, honako ekitaldi eta modalitate hauetan kontratu honen helburutik kanpo geratuko da **SGAEren** erreperorioko lanen jendaurreko komunikazioa:

1.- Lan dramatikoaren edo liriko dramatikoaren antzezpenak, barietateetako ikuskizunak eta kontzertu sinfonikoak.

2.- Urte-amaierako jaiak, ezkontzak, oturuntzak eta antzeko ekitaldiak ospatzeko egindako dantzaldiak.

3.- Galak, kontzertuak eta errezitaldiak, hau da, **SGAEren** erreperorioa modu berezian erabiltzen denean. Izan ere, ikuskizuntzat hartuko dira ohiko beste leku batzuen esparruan garatzen direnean (esate baterako, antzokiak, auditorioak edo horretarako egokitutako pabilioiak). Gainera, kontratu honetan aipatutako lokalaren esparruan eskaintzen direnean, lokalean sartzeko prezioa eskatu ahal izango da, kasuan kasuko ekitaldiaren publizitate-zabalkundea egin ahal izango da edo eserlekuak saldu ahal izango dira aldezturik.

4.- Ikus-entzunezko lanen emanaldia, erakustaldia eta aurkezpena, betiere berariazko baimenik ez badago eta I. eranskinean aurreikusitako modalitatearen arabera egiten ez bada.

5.- Edonolako giza joaldia (zuzeneko ekitaldiak).

3) **ENPRESAK** ezin izango ditu **SGAEren** erreperorioko lanak baimendutakoak ez beste modalitate eta modu batzuetan erabili, aldezturik idatziz baimenik eskatu eta lortu ez badu.

### HIRUGARRENA.- Jabetza intelektualeko beste eskubide batzuk

Dena dela, kontratu honetan zehaztutako xedapenek legeriak honako hauexei aitortutako eskubideak uzten dituzte salbu: artista interpreteak eta joleak, fonogramen ekoizleak eta ikus-entzunezko grabazioen ekoizleak.

### LAUGARRENA.- Baimenaren eskualdaezintasuna

Dena dela, **SGAEk** kontratu honetan emandako baimena eskualdaezina izango da. **ENPRESAK** **SGAEren** aurrean erantzun beharko du kontratu honetan zehaztutako betebeharrak guztiengatik, nahiz eta iragankortasunez bere lokala beste pertsona fisiko edo juridiko bati kostu bidez edo dohainik laga.

### BOSGARRENA.- Ordainsaria. Ordaintzeko modua

1) Emandako baimenagatik ordainsari moduan, baimenak indarrean dirauen bitartean, **ENPRESAK** **SGAEri** kudeaketa-erakundeko tarifa orokorrean zehaztutako kopurua ordainduko dio hila eta frakzio bakoitzeko. Kontratu honetako I. eranskinean zehaztutakoa izango da ordainsariaren hileko zenbatekoa.

2) Eranskin horretan adierazitako ordainsaria hiru hileko bakoitzeko bigarren hila beteko lehen hamabost egunetan ordainduko da **SGAEko** edozein bulegotan.



Ordainsariaren ordainketa errazteko asmoz, **ENPRESAK** honako kontu korrante hau ematen du:

| Bankua edo kutxa | Bulegoa | KD | Kontu-zenbakia |
|------------------|---------|----|----------------|
|------------------|---------|----|----------------|

X Bankua

Bulegoa

### SEIGARRENA.- Tarifen berrikuspena

1) I. eranskinean adierazitako tarifa orokorrak urtero berrikusiko dira urtarrilean, kontratuaren data edozein dela ere, eta Estatistikako Institutu Nazionalak edo etorkizunean eginkizun horiek izan ditzakeen organismoak (nazio osorako) argitaratutako aurreko urteko Kontsumorako Prezioen Indizearen arabera (KPI) aldatuko dira.

2) Berrikuspen bakoitzean, aurreko epealdi hurrenean ezarritako tarifaren zenbatekoa hartuko da oinarritzat.

3) Tarifak zuzenean berrikusiko dira, eta urte bakoitzeko urtarriaren 1ean sartuko dira indarrean, **ENPRESARI** aldeztuz aurretik berriaz jakinarazi gabe.

### ZAZPIGARRENA.- Lokalaren azalerako aldaketen jakinarazpena. Egiaztatzeko ahalmenak

1) Hiru egun lehenago, gutxienez, **ENPRESAK** **SGA**eri idatziz jakinarazi beharko dio aitortutako lokalaren azaleran egindako edozein aldaketa edo erreperitorioa bigarren mailan eta halaberrez edo beharrez darabilten lokal-guneen azaleretako edozein aldaketa edo birbanaketa.

2) **SGA**ek **ENPRESAREN** eragiketak egiaztatzeko eta ikuskatzeko ahalmen zabalenak izango ditu, betiere kontratu honetan bere gain hartu dituen betebeharrekin lotuta badaude.

3) Hori dela eta, **ENPRESAK** **SGA**eko ordezkari, delegatu eta ikuskatzaileei eta horretarako baimendutakoei utziko die lokalean askatasun osoz sartzen eta horretarako beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egiten; esate baterako, azaleraren neurketak.

4) **SGA**ek egindako egiaztapenen ondorioz **ENPRESAK** aitortutako lokalaren azalera edo bertako guneen birbanaketa benetakoa ez dela ikusiz gero, **SGA**ek behar besteko eskubidea izango du, autore-eskubideen arloan aldeengatikiko likidazioa egiteko eta honako arau hauek ezartzeko:

1.- Likidazioa kontratua sinatu zeneko egunera eramango da, baina gehieneko epea bi urtekoa izango da, betiere **ENPRESAK** aldaketa noiz egin zen sinesgarritasunez egiaztatzen ez badu. Halakoetan, data horretatik aurrera likidatuko dira aldeak.

2.- Autore-eskubideak **SGA**ek egindako egiaztapenaren ondorioz lortutako azaleraren edo aldaketen arabera kalkulatuko dira.

### ZORTZIGARRENA.- Kontratuaren iraupena eta amaiera

1) Kontratua bertan adierazitako egunean sartuko da indarrean, eta mugagabea izango da.

2) Legezkoak ez ezik, **ENPRESAK** I. eranskinean zehaztutako ordainketa-betebeharra ez betetzea ere izango da kontratuari amaiera emateko arrazoia. Amaiera gauzatzeko, nahikoa izango da **ENPRESAREN** helbidera idatzizko jakinarazpen ziurtatua bidaltzea.

3) Bi alderdiek kontratuari eman ahal izango diote amaiera, hilabete lehenago beste alderdiari idatziz jakinarazten badiote. **ENPRESAK** amaiera ematen badiu, ezinbestekoa izango da **SGA**eren erreperitorioaren erabilera benetan etetea eta giro-musikarako erabilitako sistema establezimendutik bertatik kentzea. Amaieraren berri eman ondoren, **ENPRESAK** **SGA**eren erreperitorioa erabiltzen jarraitzen badu, kontratuak indarrean iraungo du ondorio guztietarako.

4) Harik eta ordaindu arte, mugaegunean ordaindu gabeko zenbateko guztiak itzulketa-gastuak sortuko dituzte **SGA**eren alde, egon baleude, baita diruaren legezko interesa gehi bi puntu ere.

Interes horiek **SGA**ek zehaztutako aldeengatikiko likidazioetan ezarriko dira, zazpigarren xedapeneko 4) zenbakian adierazitakoa kontuan hartuta.

### BEDERATZIGARRENA.- Gastuak

Kontratu honen ondorioz zuzenean edo zeharka sortutako edonolako gastuak, zergak eta tributuak **ENPRESAREN** konturakoak izango dira.

### HAMARGARRENA.- Datuen tratamendua

Erakundeak datuak tratatuko ditu, Jabetza Intelektualeko eskubideak kudeatzeko eta ustiapen-eskubideen erabilera egiaztatzeko. Aurreikuspenen arabera, **SGA**ek ez die hirugarrenei datu pertsonalik lagako, betiere honako suposamendu hauek gertatzen ez badira:

a) Bertako ordezkari moduan, kudeaketa-erakundeekin hitzarmena/akordioa sinatzen duenean.

b) Enpresa-elkartearekin hitzarmena sinatu duenean, betiere **INTERESDUNA** bertako kidea bada. Halakoetan, datu pertsonalak eskuratzeko baimena emango dio enpresa-elkarteari, hitzarmeneko klausuletan zehaztutako bitartekaritza-eginkizuna gauzatzeko. Bitartekaritza-eginkizun hori datuen titularra den **INTERESDUNAREN** onurarako izango da.

c) Enpresa-elkartearekin hitzarmena sinatu duenean eta, hitzarmenaren helburuak lortzeko orduan, lagapen hori beharrezkoa denean.

d) Euren ordezkari moduan, ustiapen-eskubideen titularrak diren pertsona juridikoekin kontratua sinatzen duenean.



Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan adierazitakoaren arabera, **INTERESDUNAK** bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak izango ditu, datu horiek **SGAEren** ardurapeko fitxategietan gordetzen direnean. Eskubide horiek erabiltzeko, idazkia bidali ahal izango du Berrikuntza, Kalitate eta Segurtasun Sailera (Fernando VI 4, PB 28004 Madril). Bestela, mezua ere bidali ahal izango du [ejerciciodederechos@sgae.es](mailto:ejerciciodederechos@sgae.es) postontzira. Hitzarmenen, akordioen eta kontratuen esparruan, **SGAEk** beste erakunde batzuetako ordezkari moduan badihardu eta tratamenduaren arduraduna bada, interesdunak fitxategi bakoitzeko arduradunaren aurrean erabili beharko ditu bere eskubideak eta inoiz ez **SGAEren** aurrean.

**HAMAIKAGARRENA.-** Jurisdikzioa eta betebeharra betetzeko lekua


Bi alderdiek ezarritakoaren arabera, betebeharra betetzeko lekua bosgarren xedapenean adierazitako **SGAEren** helbidea izango da.

Beraz, berariaz uko egingo diote legokiekeen beste edozein foruri, eta hemengo epaitegiei zein auzitegiei men egingo diete:


kontratu honen ondorioz sortu daitezkeen gai guztiak ebazteko orduan.

Euren adostasunaren adierazgarri, bi alderdiek kontratu honen bi kopia sinatzen dituzte lehen adierazitako lekuan eta egunean.

ENPRESA,



SGAE,



**GIMNASIOAK, DANTZAKO AKADEMIAK ETA  
ANTZEKO JARDUERAK**

## eta SGAE. Data: 2015-02-01

(I) Metatutakoa guztira

(l) Bat bera ere bakartu edo baztertu gabe **SGAerekin** guzti-guztiak kontratatzeko asmoz, euren lokal guztien azalera metatzea erabakitzen dutenean, 5.000 m<sup>2</sup> baino gehiago edo, gutxienez, 2.000 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera duten establezimendua duten enpresei baino ez zaizkie baldintza hauek ezarriko.



# GIMNASIOETAN, DANTZAKO ESKOLETAN ETA ANTZEKO BESTE ESTABLEZIMENDU BATZUETAN FONOGRAMAK EDO EUREN ERREPRODUKZIOAK JENDAURREAN KOMUNIKATZEKO KONTRATUA

LOKALAREN IZENA IBARRA KIROLDEGIA  
LOKAL-MOTA KIROLDEGIA  
HELBIDEA MARKOLE Z/G zk.  
UDALERRIA ARETXABALETA PROBINTZIA GIPUZKOA PK  
TELEFONOA 943039842 FAXA E-POSTA info@ibarrakiroldegia.com

(e)n, 20 (e)ko aren (e)(a)n

## BILDUTAKOAK

Batetik: Eskubide Intelektualak Kudeatzeko Elkarte (AGEDI), G79070520 IFK duena, eta Artistak, Interpreteak eta Joleak, Espainiako Kudeaketa Sozietatea (AIE), G79263414 IFK duena. Biek Madrilén dute ondorio hauetarako helbidea (Padre Damián 40), eta euren ordezkaria

IRENE AGIRRE GOIENA da, SGAEko ORDEZKARI.

moduan, erakunde hori AGEDIren eta AIEren eskubideak batera kudeatzeko emandako aginduren arabera.

Alderdi hau AGEDI-AIE izango da aurrerantzean.

Bestetik: ANA BOLINAGA URIBARREN andrea, adinez nagusia,  
helbidea OTALORA kaleko 1 zenbakian duena,  
Udalerría ARETXABALETA Probintzia GIPUZKOA PK  
Telefona 943711862 Mobila e-posta udala@aretxabaleta.eus  
☐ 72573762E... zenbakidun BIZILEKU-BAIMENA ☐ PASAPORTEA IFZ NAN duena eta [1] diharduena.

Alderdi hau ENPRESA izango da aurrerantzean.

[1] Bere izenean

Sozietate honetako ordezkari moduan: ARETXABALETAKO UDALA  
helbidea OTALORA kaleko 1 zenbakian duena,  
Udalerría ARETXABALETA Probintzia GIPUZKOA PK 20550... eta  
P2001400G IFK duena, (e)(a)n (e)ko  
notario jaun/andreak aurrean bere protokolo  
zenbakipean eskuetsitako eskrituraren bidez egiaztatzen duen bezaia.



## ADIERAZPENAK

I. **AGEDI** erakundeak Kultura Ministerioaren baimena dauka (1989ko otsailaren 15eko Agindua, martxoaren 11ko BOE), besteak beste, ekoizle fonografikoek euren soinu eta ikus-entzunezko grabazioen jendaurreko komunikaziorako dituzten eskubideak kudeatzeko, bere estatutuetan aurreikusitako baldintzak kontuan hartuta.

II. **AIE** erakundeak Kultura Ministerioaren baimena dauka (1989ko ekainaren 29ko Agindua, uztailaren 19ko BOE), besteak beste, artistek, interpreteek edo joleek euren ekitaldien edota finkapenen jendaurreko komunikaziorako dituzten eskubideak kudeatzeko, bere estatutuetan aurreikusitako baldintzak kontuan hartuta.

III. **ENPRESAK** honako haurx adierazten du:

Fonogramen edo euren erreprodukzioen jendaurreko komunikazioa egin nahi du, kontratu honetako I. eranskinean zehaztutako modalitatean eta baldintzetan. Ondorio horretarako, adierazi egiten du jakin badakiela zein diren **AGEDI-AIE**ren tarifa orokorrak bertan azaldutako modalitateetarako.

IV. Jardun bitartean, bi alderdiek kontratatzeke eta derrigortzeko beharrezkoa den legezko gaitasuna elkarri aitortu ondoren, kontratu hau hitzartzen dute adostasunez, honako hauexen arabera:

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA.- Kontratuaren helburua.

1. Kontratu honen bidez, behar besteko baldintzak eta mugak arautuko dira, **ENPRESAK** modu ez-esklusiboan fonogramak edo euren erreprodukzioak jendaurrean komunikatzeko eta, horregatik, artistei, interpreteei edo joleei eta fonogramen ekoizleei behar besteko ordainsaria ordaintzeko, betiere euren eskubideak (indarreko legeriaren arabera babestutakoak) **AIE**ren eta **AGEDI**ren kudeaketaren esparruan badaude, hurrenez hurren.
2. Kontratu honen ondorioetarako, bigarren mailako edo halabeharrezko erabilera izango da, fonogramen edo euren erreprodukzioen erabilera oro eteten denean establezimenduaren izaera edo ustiapen-modua aldatzen ez bada.
3. Era berean, kontratu honen ondorioetarako, beharrezko erabilera izango da, fonogramen edo euren erreprodukzioen erabilera oro eteten denean establezimenduaren izaera edo ustiapen-modua aldatzen bada.

### BIGARRENA.- Erreserbatutako eskubideak.

1. Ez dira kontuan hartuko Jabetza Intelektualari buruzko Legearen arabera artistek, interpreteek edo joleek edota fonogramen ekoizleek aitortuta dituzten beste eskubide batzuk, lehenengo klausulan eta bertan aurreikusitako modalitateetan azaldutakoak ez bezalakoak direnean. Modu berezian, kontratu honetatik kanpo geratuko da fonogramak edo euren erreprodukzioak urte-amaierako jaiak, ezkontzak, oturuntzak edo antzeko ekitaldiak ospatzeko egindako dantzaldietan erabiltzea eta, oro har, edozein erabilera nagusi egitea, baita jendaurreko komunikaziorako erreprodukzio-eskubidea ere.
2. Kontratutik kanpo eta legezko titularren alde erreserbatuta geratuko dira beste titular batzuenak diren jabetza intelektualeko eskubide guztiak; esate baterako, autoreak; argitaratzaileak; artistak, interpreteak edo jole ez-musikalak; eta irati-erakundeak.
3. Kontratu honen helburu diren jendaurreko komunikaziorako egintza guztietan, fonogramen kopia originalak erabili beharko dira, honako suposamendu hauetan izan ezik:
  - Fonogramen edo euren erreprodukzioen jendaurreko komunikaziorako egintzetan, **ENPRESAK** kontratu honen helburu diren fonogramen edo euren erreprodukzioen jendaurreko komunikaziorako egintzak garatzeko asmoz bere kabuz egindako kopiak erabiltzen direnean, betiere **AGEDI**k horretarako emandako derrigorrezko baimena badauka.

■ Fonogramen edo euren erreprodukzioen jendaurreko komunikaziorako egintzetan, hirugarrenak musika-girorako zerbitzua eskaintzeko asmoz egindako kopiak erabiltzen direnean, betiere **AGEDI**ren derrigorrezko baimena badauka. Hartara, **ENPRESAK** kontratu honen helburu diren fonogramen edo euren erreprodukzioen jendaurreko komunikaziorako egintzak garatu ahal izango ditu.

### HIRUGARRENA.- Ordainsaria.

Lehenengo klausulan adierazitakoaren arabera, kontratua indarrean dagoen bitartean, **ENPRESAK AGEDI-AIE**ri **AGEDI-AIE**ko tarifa orokor bakarretan zehaztutako zenbatekoa ordaindu beharko dio hilabete edo frakzio bakoitzeko, fonogramak edo euren erreprodukzioak jendaurrean komunikatzeagatik. **ENPRESAK**, gainera, jakin badakiela adierazten du, kolakaren datuen arabera ezarriko da-eta. Hain zuzen ere, kontratu honetako I. eranskinean zehaztutakoa izango da ordainsariaren hileko zenbatekoa.

### LAUGARRENA.- Tarifen berrikuspena.

Aurreko klausulan adierazitako tarifak urtero berrikusiko dira urtarirlean, eta Estatistikako Institutu Nazionalak edo eginkizun berberak dituen organismoak (nazio osorako) argitaratutako aurreko urteko bizitzako kostuaren indize nagusiaren edo Kontsumorako Prezioen Indizearen arabera (KPI) aldatuko dira. Izan ere, **ENPRESAK** berrikuspena egiten denean ordaintzen duen zenbatekoa hartuko da oinarritzat; edo, bestela, ordaindu behar zuen besteren bat.

Tarifak zuzenean berrikusiko dira, **ENPRESARI** aldeztu aurretik berariaz jakinarazi gabe, KPIren aldaketak publikoak eta ezagunak direlako.

### BOSGARRENA.- Ordaintzeko modua.

1. SGAEk **AGEDI**ren eta **AIE**ren eskubideak batera kudeatu ditzan 2009ko apirilaren 1ean sinatutako hitzarmenaren arabera eta hitzarmen hori indarrean dagoen bitartean, **ENPRESAK** SGAEri **AGEDI**ren eta **AIE**ren eskubideei dagozkien HIRUHILEKO ordainagiriak ordainduko dizkio hiruhileko bakoitzeko bigarren hilabeteko lehen hamabost egunetan, SGAEko edozein bulegotan.  
Ordainsariaren ordainketa errazteko asmoz, **ENPRESAK** honako kontu korrante hau ematen du:



BANKUA

BULEGOA

Kasuan kasuko datan, **ENPRESAK** banku horri behar besteko agindua emango dio, ondorio horretarako aurkeztutako ordainagiriak atenditu ditzan.

- (1) tartearen hasieran aipatutako hitzarmenaren indarraldia amaitzen denean, **AGEDIK** eta **AIEK ENPRESARI** horren berri emango baliote, **ENPRESAK AGEDI** eta **AIE**ri zuzenean ordaindu beharko lizkieke euren eskubideei dagozkien ordainagiriak, kontratu honetan sinatutako termino eta baldintza berberetan edo, besterik ezean, **AGEDIK** eta **AIEK ENPRESARI** jakinarazitakoen arabera.
- AGEDI**ren eta **AIE**ren artean fonogramen jendaurreko komunikaziorako eskubideak batera kudeatzeko hitzarmena amaituz gero eta **AGEDIK** edo **AIEK ENPRESARI** jakinaraziz gero, **ENPRESAK AGEDI**ri aparte ordaindu beharko dio kontratu honetako hirugarren zein laugarren klausulen arabera ezarri beharreko ordainsariaren %51; eta gainerako %49, **AIE**ri berari, zuzenean.
- Hanik eta ordaindu arte, mugaegunean ordaindu gabeko zenbateko guztiek itzulketa-gastuak sortuko dituzte **AGEDI-AIE**ren alde, egon baleude, baita abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako interesa ere (2004-12-30eko 314. BOE), bertan aurreikusitako terminoak eta baldintzak kontuan hartuta.

#### SEIGARRENA.- Baimenaren eskualdaezintasuna.

Dena dela, kontratu hau eskualdaezina izango da. **ENPRESAK AGEDI-AIE**ren aurrean erantzun beharko du kontratu honetan zehaztutako betebeharrak guztiengatik, nahiz eta iragankortasunez bere lokala beste pertsona fisiko edo juridiko bati kostu bidez edo dohainik laga.

#### ZAZPIGARRENA.- Datuetako aldaketen jakinarazpena. Egiaztatzeko ahalmenak.

- ENPRESAK** agiri honetan fonogramen edo euren erreproduzioen jendaurreko komunikaziorako darabilen lokalari buruz adierazitako datuen arabera zehaztuko da ezarri beharreko tarifaren zenbatekoa. Hori dela eta, gutxienez hiru lanegun lehenago, **ENPRESAK AGEDI-AIE**ri idatziz jakinarazi beharko dio datu horietan gertatu daitekeen edozein aldaketa. Era berean, **ENPRESA** bera fonogramen edo euren erreproduzioen eta ikus-entzunezko grabazioen jendaurreko komunikaziorako beste lokal edota establezimendu batzuk kudeatzen hasten bada, gutxienez bi egun lehenago jakinarazi beharko dio **AGEDI-AIE**ri.
- AGEDI-AIEK ENPRESAREN** eragiketak egiaztatzeko eta ikuskatzeko ahalmen zabalena izango ditu, betiere kontratu honetan bere gain hartu dituen betebeharrekin lotuta badaude. Hori dela eta, **ENPRESAK AGEDI-AIE**ko ordezkari, delegatu eta ikuskatzaileei eta horretarako baimendutakoei utziko die lokalean askatasun osoz sartzen, **ENPRESAREN** kasuan kasuko agiriak eskuratzen eta horretarako beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egiten.
- ENPRESAK AGEDI-AIE**ri adierazitakoa egiazkoa ez bada edo lehenengoak aurreko paragrafoetan aurreikusitako betebeharrak betetzen ez baditu, kontratu hau indarrean sartzen denetik (eta bi urteko gehieneko epean) ordaindu beharko dira ezarritako tarifaren eta benetan ezarri behar den tarifaren artean dauden aldeak, gehi bosgarren klausulan aurreikusitako

berandutza-interesak, aldaketa noiz egin zen edo errakuntza noiz gertatu zen kontuan hartu gabe. Xedapen hau, beraz, kontratua ez betetzeagatik zigorra izango da.

#### ZORTZIGARRENA.- Kontratuaren iraupena eta amaiera.

- Kontratu hau bertan adierazitako egunean sartuko da indarrean, eta mugagabea izango da. Edozein alderdik kontratuaren amaiera iragarri ahal izango du, gutxienez hilabete lehenago beste alderdiari sinesgarritasunez jakinaraziz gero.
- Edozein alderdik kontratuari eman ahal izango dio amaiera, beste alderdiak kontratuko baldintzak betetzen ez dituenean.
- Kontratu honen helburu den establezimenduaren titularitatearen aldaketa edo ustiapen komertzialaren etendura **AGEDI-AIE**ri jakinarazi beharko zaio sinesgarritasunez. Horretarako, Espainiako Zergak Administrazio Agentziak jardueraren etenduraren inguruan egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta titularitatea edo ustiapena zer enpresa edo erakundek hartuko duen zehaztu beharko da, egon balego. Jakinarazpen hori egin arte, **ENPRESAK** kontratu honen ondorioz sortutako betebeharrak bere gain hartzen jarraituko du.
- AGEDIK** eta **AIEK** kontratuaren amaiera iragartzeko edo kontratua amaitzeko aldebakarreko ahalmenak batera edota aldi berean betearazi beharko dituzte, behar besteko ondorioak izan ditzaten.

#### BEDERATZIGARRENA.- Gastuak.

Kontratu honen ondorioz sortutako edonolako gastuak eta zergak **ENPRESAREN** konturakoak izango dira.

#### HAMARGARRENA.- Irekialdia.

Bere erantzukizunpean, **ENPRESAK** adierazi egiten du kontratu honen helburu den lokala urte natural bakoitzeko urtariletik abendura (biak barne) dagoela zabalik.

#### HAMAIKAGARRENA.- Datuen tratamendua.

Interesdunak emandako datu pertsonalak **AGEDI-AIE**ren ardurapean (Artisten eta Ekoizleen Diru Bilketarako Organo Bateratua) eta Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean inskribatuta dagoen fitxategian gordeko dira. Erakunde honi emandako datuak jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzeko daukan eskumenaren esparruan tratatuko dira. Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan adierazitakoaren arabera, interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak izango ditu. Eskubide horiek erabiltzeko, idazkia bidali ahal izango du **AGEDI-AIE** erakundera (Padre Damián 40, 1. solairua, 28036, Madril).

**AGEDI-AIE**ekin hitzarmena daukan enpresa-elkartearen bateko kidea izanez gero, interesdunak badaki **AGEDI-AIE** behar besteko baimena eman ahal izango diola interesdunaren kideatzeko enpresa-elkarteari, datu pertsonal horiek eskuratzeko. Hartara, **AGEDI-AIE** enpresa-elkarteari sinatutako hitzarmeneko klausuletan zehaztutako bitartekaritza-eginkizuna ezarri ahal izango da. Bitartekaritza-eginkizun hori datuen titularrak den interesdunaren onurarako izango da. Horrez gain, **AGEDI-AIE** enpresa-elkarteari ere laga ahal izango dizkio hitzarmenean azaldutako helburuen lorpeneko beharrezkoak diren beste era bateko datuak. Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (NDBLO) eta NDBLO garatzeko Araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan adierazitakoaren



arabera, AGEDI-AIEk behar besteko segurtasun-neurriak ezarri ditu, interesdunaren datu pertsonalen isilekotasuna eta osotasuna babesteko.

**HAMABIGARRENA.-** Ezarri beharreko legea. Klausula jurisdikzionala.

Kontratu hau Espainiako legearen arabera arautuko da.

Bi alderdiek berariaz uko egingo diote legokiekeen beste edozein foruri, eta hemengo epaitegiei zein auzitegiei men egingo diete:

kontratu honen ondorioz sortu daitezkeen gai guztiak ebazteko orduan.

Euren adostasunaren adierazgarri, bi alderdiek kontratu honen bi kopia sinatzen dituzte hasieran adierazitako lekuan eta egunean,

(ENPRESA)

(AGEDI-AIE)



GIMNASIO, DANTZAKO ESKOLA ETA ANTZEKO BESTE  
ESTABLEZIMENDU BATZUETARAKO KONTRATUKO  
I. ERANSKINA

BALDINTZAK

Honako hauexek sinatutako kontratua: ANA BOLINAGA URIBARREN

eta AGEDI-AIE. Data: 2015-02-01

ENPRESAREN DATUAK

| LOKALA            | LOKAL-MOTA | BIGARREN MAILAKO ERABILERA |           | BEHARREZKO ERABILERA |           | TBko TRESNAK |           |
|-------------------|------------|----------------------------|-----------|----------------------|-----------|--------------|-----------|
|                   |            | M <sup>2</sup>             | HILABETEA | M <sup>2</sup>       | HILABETEA | TB kop.      | HILABETEA |
| IBARRA KIROLDEGIA | KIROLDEGIA | 178,23                     | 8,43      | 80,07                | 54,56     | 1            | 3,15      |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |
|                   |            |                            |           |                      |           |              |           |

METATUTAKOA GUZTIRA

JENDAURREKO KOMUNIKAZIOAREN MODALITATEA ETA ORDAINSARIA

- ☐ Fonogramen edo euren erreprodukzioen jendaurreko komunikazioa, zuzenean edo soinuuzkoak bakarrik diren programa, kanal edo grabazioetakoak, erabilera beharrezkoa denean 54,56 €
- ☐ Fonogramen edo euren erreprodukzioen jendaurreko komunikazioa, zuzenean edo soinuuzkoak bakarrik diren programa, kanal edo grabazioetakoak, erabilera bigarren mailakoa denean 8,43 €
- ☐ Fonogramen edo euren erreprodukzioen jendaurreko komunikazioa, soinuuzkoak bakarrik diren programa, kanal edo grabazioetakoak, erabilera bigarren mailakoa denean 3,15 €

HILEKOA GUZTIRA 66,14 €

**BIGARREN MAILAKO ERABILERA:** bat bera ere bakartu edo baztertu gabe AGEDIrekin eta AIErekin guzti-guztiak kontratatzeko asmoz, euren lokal guztien azalera metatzea erabakitzen dutenean, 30.000 m2 baino gehiago edo, gutxienez, 2.000 m2-tik gorako azalera duten establezimendua duten enpresei baino ez zaizkie baldintza hauek ezarriko.

Aretxabaleta (e)n, 20 15 (e)ko Otsaila aren 1 (e)(a)n

(ENPRESA)

(AGEDI-AIE)

